

euskal eskola publikoak



XX. TOPAKETAK

Irakasle eta ikastetxeen
formakuntza eta aholkularitza

2006ko maiatzaren 11, 12 eta 13an

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
2. Formakuntza legeetan	5
3. XX. Topaketen lan-taldeak	11
4. Proposamenak	23
5. Eranskinak.....	24

1. SARRERA

2006ko maiatzaren 11, 12 eta 13an SAREAN elkarteak XX. Topaketak burutu ditu Donostiako Miramar Jauregian. Jardunaldi hauen xedea Elkarteak dituen helburu nagusien lorpenean beste urrats bat ematea izan da eta asmo horrekin hainbat eskola publikoren izenean 75 pertsona inguru bildu gara aztergai nagusia hau zelarik: *"Irakasle eta ikastetxeen formakuntza eta aholkularitza"*

Jakinaren gainean gaude oso gai zabala dela bai edukian bai hartzen duen denboran, irakasleen hasierako formakuntzan hasi eta bizitza profesional osoan zehar mantentzen baita, garai bakoitzean behar bereziak azalaraziz.

Gaiaren inguruko hausnarketa bideratzeko ohi dugun bezala, lan-taldeak osatu dira eta aldi honetan hiru azpigai zehaztu dira:

- Hasierako formakuntza
- Etengabeko formakuntza
- Laguntza zerbitzuak

Lan-taldeen jarduna bideratzeko erabili den dokumentazioa ondokoa izan da:

- Magisteritzaren curriculum berrizteko planaren zirriborroa
- EHAak: - 2005eko uztailaren 20koa (Formakuntza-berrikuntza)
- 2005eko maiatzaren 25koa (Banakako laguntzak)
- 2005eko maiatzaren 13ko erabakia (Ingelesa)
- Euskadiko Eskola Kontseiluak egindako "EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena 2002-2004"

Aipatutako lan-taldeetan adierazitako egoerak, arazoak, asmoak edota nahiak kontuan hartu ondoren, sortu dira talde handiaren aurrean aurkeztu diren proposamenak eta bertan osatu eta onartu ondoren Hezkuntza Sailaren arduraduneei jakinaraziko zaizkienak.

Txostenaren edukia, sarrera honetatik aparte, beste lau ataletan sailkatuta agertzen da; lehenengo formakuntzaren abiapuntua, hau da, gaur egun arlo horretan ikastetxeetan daukaguna zein arauetan oinarritzen den eta hezkuntzako lege nagusietan kronologikoki formakuntzari eman zaion lekua.

Hurrengo atalean bi momentu bereizten dira:

- Topaketen lan-taldeetan egindako hausnarketa
- Ondoren egindako proposamenak

Hirugarren atalean, formakuntzaren ikuspegi globala hartuta, gaiaren inguruan XX. Topaketetan egiten diren proposamen zehatzak agertzen dira.

Azkenez, laugarren atalean, interesgarriak iruditu zaizkigun edo azterketan erabili diren dokumentuak biltzen dira.

SAREAN elkartearen talde dinamizatzaileak hausnarketa honetan aritu diren guztion ahalegina estimatzen du eta horren ondorioz sortuko diren hobekuntzak zalantza barik Eskola Publikoaren mesederako izango direla uste du. Gure esker ona Gipuzkoako Magisteritza Eskolako zuzendari eta irakasleei, egindako lanagatik eta etorkizunean elkarlanean jarraitzeko zabaldu duten esparruagatik, SAREAN elkarte gogoz arituko da zeregin horretan.

2. Formakuntza legeetan

XXI. mendean sartuta, pertsonen amaigabeko formakuntzaz gero eta gehiago hitz egiten da eta gizartean inoiz baino irtenbide gehiago jasotzen ari da gizabanakoaren garapenari mugarik gabeko esparrua eskaintzeko. Profesional guztien etengabeko formakuntza garrantzitsua bada, zer esanik ez irakasleena, arlo honek bildu behar baitu bi eguneratze prozesu nagusi, alde batetik eduki berriak, teknologia etab. eta bestetik belaunaldi berrien ezaugarriak eta beharrak.

Zeregin honetan aspaldidanik aritu diren kolektibo pedagogikoen eskutik lehenengo eta LOGSEren ezarpenean antolatu zen PIF deitutako jardunaren ondorioz gero, ikastetxeetan errotuta dago formakuntzaren ekimena.

Interesgarria iruditu zaigu gaur eguneko egoera eta proposamenak ulertzeko, LOGSE ezarri zenetik formakuntza atalak unean uneko legeetan izan duen agerpena, eta puntu garrantzitsu batzuk azpimarratu ditugu:

LOGSE (1990)

Lege honetan irakasleriaren formakuntzaren garrantzia argi eta garbi azaltzen da eta oinarri sendoak ezarri ziren:

Artículo 56

- 1. La formación inicial del profesorado se ajustará a las necesidades de titulación y de cualificación requeridas por la ordenación general del sistema educativo...*
- 2. La formación permanente constituye un derecho y una obligación de todo el profesorado y una responsabilidad de las Administraciones educativas y de los propios centros. Periódicamente, el profesorado deberá realizar actividades de actualización científica, didáctica y profesional en los centros docentes, en instituciones formativas específicas, en las universidades y, en el caso del profesorado de formación profesional también en las empresas.*
- 3. Las Administraciones educativas planificarán las actividades necesarias de formación permanente del profesorado y garantizarán una oferta diversificada y gratuita de estas actividades. Se establecerán las medidas oportunas para favorecer la participación del profesorado en estos programas.*

Hasierako formakuntza, Topaketetan parte hartu dugunen ustez, beste beharretara ere egokitu behar da, hau da, gizartearen eskakizunetara. Bigarren puntuan "beharra" azaltzen da, eta argi uzten da irakasleriak maiztasunez bete beharreko eginkizuna dela; gaur eguneko planetan ez da ezinbestean planteatzen eta puntu honen inguruan eztabaida interesgarria sortu da.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEA (1993)

Irakaslegoaren euskalduntzeari garrantzi handia eman zitzaion hemen eta urteak pasa ahala eskola publikoaren irakasleriak arrakastaz bete du helburua, dagoeneako plantilen %90a baino gehiagok HE2 baitauka. Zuzendaritza Taldekideen prestakuntza azaltzen da batez ere hizkuntz eskakizunari lotuta.

Bestalde azpimarragarria da lege honetatik aurrera martxan jartzen diren Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak.

Urteko Planaren beharra eta formakuntzak bere barnean duen garrantzia datu nabariak dira eta neurri batean ikastetxeetan sortu den dinamikaren bultzatzaileak ere.

Euskara Euskal Eskola Publikoan (III. Idazpurua)

22. atala.-2 Aurreko atalkian ezarritakoarekin bat etorriz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak irakaslegoa euskalduntzeko plan urteanitz burutuko du...

Euskal eskola publikoaz eta bere eraketaz (IV. Idazpurua)

III. Atalburua: Hezkuntzarako laguntza zerbitzuez

26. atala:

c) Irakaslegoa prestatzeko zonaldekako planen gertatze-lanetan eta kudeaketan, eta bilguneko giza baliabideen koordinaketan laguntza ematea, ikastetxeen eskakizunei erantzunez.

Euskal Eskola Publikoko ikastetxeen autonomiaz (V. Idazpurua)

28. atala - 2. Aurreko atalkian adierazitako eratze-tresnetan jasotako zehaztapenak urtez urte gauzatzea ikastetxearen egitekoa izango da, horretarako ikastetxearen urteko plana onartu beharko duela. Hona plan horren atalak:

- a) Irakaskuntza-ihardueren egitaraua.*
- b) Prestakuntza-ihardueren, eskolaz kanpokoan eta osagarritzaren egitaraua.*
- c) Urteko kudeaketa-egitaraua*

Seigarren saila - 37. atala. Hezkuntza administrazioak ikastetxeetako zuzendaritza-taldekideen prestakuntza eta iharduera hobetzeko neurri egokiak hartuko ditu, bestek beste ikastetxearen hizkuntzako normalkuntzako helburuaren hariko hizkuntza prestakuntza.

LOPEGCE (1995)

Formación del profesorado.

- 1. Las Administraciones educativas promoverán la actualización y el perfeccionamiento de la cualificación profesional de los profesores y la adecuación de sus conocimientos y métodos a la evolución del campo científico y de la metodología didáctica en el ámbito de su actuación docente.*
- 2. Los programas de formación del profesorado garantizarán la formación permanente de los profesores que imparten área, materias o módulos en las que la evolución de los conocimientos o el desarrollo de las técnicas y de las estrategias didácticas lo requieran en mayor medida.*

3. Los programas de formación permanente deberán contemplar, asimismo, la formación específica del profesorado relacionada con la organización y dirección de los centros, la coordinación didáctica y el asesoramiento, y deberán tener en cuenta las condiciones que faciliten un mejor funcionamiento de los centros docentes.

Ikastetxearen antolakuntzaz arduratzeko Zuzendaritza Taldeak izan behar duen formakuntza aitortzen du; zuzendaritzako kargu bat onartzeak erantzukizunatik aparte, ezinbesteko ikasketa exijitzen duen arlo praktiko zabala du eta lege honek eman zuen zehaztapenak hobekuntza handia ahalbidetu zuen.

LOCE (2002)

Lege honek, etengabeko formakuntzaren barruan kalitatearen kontzeptua sartzen du eta lekualdatze lehiaketetarako formakuntzaren bidez lortutako merituen balioa jasotzen du.

CAPÍTULO I: De la formación del profesorado

Artículo 57. Principios.

- 1. Las Administraciones educativas promoverán la actualización y la mejora continua de la cualificación profesional de los profesores y la adecuación de sus conocimientos y métodos a la evolución de la ciencia y de las didácticas específicas.*
- 2. Los programas de formación permanente del profesorado deberán contemplar las necesidades específicas relacionadas con la organización y dirección de los centros, la coordinación didáctica, la orientación y tutoría, con la finalidad de mejorar la calidad de la enseñanza y el funcionamiento de los centros.*

Artículo 59. Formación permanente.

- 3. A los efectos de los concursos de traslados de ámbito nacional y del reconocimiento de la movilidad entre los cuerpos docentes, previstos en la disposición adicional octava de esta Ley, las actividades de formación organizadas por cualesquiera de las Administraciones educativas, surtirán sus efectos en todo el territorio nacional, previo cumplimiento de los requisitos básicos que el Gobierno establezca, una vez consultadas las Comunidades Autónomas.*

LOE (2006)

Onartu berria den lege honek egungo gizartearen beharrak kontuan hartuta, formakuntzaren egokitzapena bideratzeko oinarriak markatzen ditu. Hasierako formakuntzan LOGSEn zegoen hutsunea betetzen da hemen eta Europaren antolakuntzaren eredua hartzen da. Formakuntzaren definizioan "beharra" hitza mantentzen den arren nolabaiteko malgutasuna adierazten da.

Programetan sartu behar diren gaietan aurreko legeetan azaltzen direnetik aparte, LOCEk aldarrikatu zuen kalitatea ere kontuan hartzen da eta gai berri bezala, lege honek Administrazioen programetan norbanakoen arteko berdintasuna eta sexu indarkeriaren kontra jarduteko formakuntzaren eskaintza ezinbestekotzat jotzen du.

Indartzen diren beste arloak teknologia berriak eta atzerriko hizkuntzen ikasketak dira, irakasleen espezialitatea edozein dela.

CAPÍTULO III

Formación del profesorado

Artículo 100. Formación inicial.

- 1. La formación inicial del profesorado se ajustará a las necesidades de titulación y de cualificación requeridas por la ordenación general del sistema educativo. Su contenido garantizará la capacitación adecuada para afrontar los retos del sistema educativo y adaptar las enseñanzas a las nuevas necesidades formativas.*
- 4. La formación inicial del profesorado de las diferentes enseñanzas reguladas en la presente Ley se adaptará al sistema de grados y postgrados del espacio europeo de educación superior según lo que establezca la correspondiente normativa básica.*

Artículo 102. Formación permanente.

- 1. La formación permanente constituye un derecho y una obligación de todo el profesorado y una responsabilidad de las Administraciones educativas y de los propios centros.*
- 2. Los programas de formación permanente, deberán contemplar la adecuación de los conocimientos y métodos a la evolución de las ciencias y de las didácticas específicas, así como todos aquellos aspectos de coordinación, orientación, tutoría, atención educativa a la diversidad y organización encaminados a mejorar la calidad de la enseñanza y el funcionamiento de los centros. Asimismo, deberán incluir formación específica en materia de igualdad en los términos establecidos en el artículo siete de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género.*
- 3. Las Administraciones educativas promoverán la utilización de las tecnologías de la información y la comunicación y la formación en lenguas extranjeras de todo el profesorado, independientemente de su especialidad, estableciendo programas específicos de formación en este ámbito. Igualmente, les corresponde fomentar programas de investigación e innovación.*

Artículo 103. Formación permanente del profesorado de centros públicos.

- 1. Las Administraciones educativas planificarán las actividades de formación del profesorado, garantizarán una oferta diversificada y gratuita de estas actividades y establecerán las medidas oportunas para favorecer la participación del profesorado en ellas. Asimismo, les corresponde facilitar el acceso de los profesores a titulaciones que permitan la movilidad entre las distintas enseñanzas, incluidas las universitarias, mediante los acuerdos oportunos con las universidades.*

Lege nagusietan markatzen diren ildoak eta betebeharrak gauzatzeko Administrazioek estamentu eta prozedura zehatzak dituzte eta horiei jarraituz

irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenarekin egiten dugu topo. Hitzarmen honen bigarren titulua da Hezkuntza Sailak eta Sindikatuek formakuntzari dagokienez sinatu duten hitzarmena (4.eranskina). Hona hemen indarrean dagoen hitzarmenean azpimarratu nahi ditugun aldeak:

1.- Hitzarmen hau garatu eta horren artapena egiteko, Prestakuntza Batzordea eta Hizkuntz Normalkuntzako Batzordea eratuko dira...

2.- Etengabeko prestakuntza ebaluatu egingo da, aurrekontuko sail, ziurtagiri, lehentasunezko aldeak esleitze, derrigortasun, emaitza eta abarrei dagokienez. Beste alde batetik, Prestakuntza Batzordeak prestakuntza plan markoa eta urteko prestakuntza planak, horien edukiak, aurrekontuko baliabideen banaketa eta euskal hezkuntza sistemaren eskaeren araberrako egokitzapena aztertu eta negoziatuko ditu...

Kontuan hartuko diren beharrianak:

- Irakasleak birziklatzeko beharrianak.
- Ikastetxeen hizkuntz egoerak dakartzan beharrianak.
- Lan Arriskuak Saihesteko Legearen garapenak dakartzan beharrianak.
- Bizikidetzeta programak eta ikasleen askotarikotasunari arreta egiteko programak bultzatzeak dakartzan ondorioak.

2.6.- Ikasturtea amaitutakoan, prestakuntza proposamena noraino bete den jakiteko ebaluazioa egingo da.

4.- Sindikatuek eta Hezkuntza Sailak hitz ematen dute prestakuntza planak etengabe aztertu eta berrikusiko dituztela.

Irakasleen etengabeko prestakuntza behar-beharrezkoa da irakaskuntzaren kalitatea berritu eta hobetzeko, baita hezkuntzaren erreforma behar bezala ezartzeko ere. Hitzarmen honen baitan, Hezkuntza Sailak jardunean diren irakasleak prestatzeko abian jarriko dituen lehentasunezko neurriek helburu dute hezkuntza sistemaren erronka berriei erantzutea.

Irakasleen etengabeko prestakuntza "irakasle guztien eskubide eta betebeharra da, batetik, eta Hezkuntza Administrazioen eta Ikastetxeen ardura, bestetik". Horrela onartzen da eta hala jasota dago LOGSEren 56. artikuluan.

21. artikulua. - Hitzarmen honek indarra duen aldirako konpromisoak.

1.- Egun indarrean dagoen Prestakuntza Plan Markoa eta hurrengo Urteko Prestakuntza Planak artatzeko, Hezkuntza Sailak abian jarriko du dagokion Prestakuntza Plana Ebaluatzeako Batzordea. Ebaluazioaren ostean ateratako emaitzak sindikatuekin batera aztertuko dira.

2.- Hitzarmen honek indarra duen aldiran, Hezkuntza Sailak -betiere aurrekontu arrunta baliatzerik bada gaur egun jardunean dauden irakasleak prestatzeko aurrekontuko esleipena handituko du; horretarako, aurreko urteko KPIren balioa igoko dio gutxienez.

6-b) Ikastetxeen antolakuntza ahalmena indartzea, Euskal Eskola Publikoaren Legeak aitortzen dien autonomiaren bidetik eta ikastetxeetako prestakuntza bultzatuz.

Hitzarmenean azaltzen den konpromiso garrantzitsua artapena egiteko Batzordeen eraketa, betebeharrak markatzen dira baina ez da osaketa zehazten. Ikastetxe eta irakasleek jardunaren ebaluaketaren aldeko jarrera adierazi dugu,

etengabeko hobekuntzaren eragile bezala ikusten dugulako; beharrezkoa ikusten dugu ikastetxeen autonomia zabaltzea, antzinatek gaude hezkuntza sistemaren erronka berriari aurre egiten proiektuetan jo eta ke lanean baina sarri askotan bi oztopo nagusik mozten dute ilusioz deskubritutako bidea, baliabideen murrizketa eta informazio falta.

Formakuntza gaia dela, eta aurrean aipatutako lege edo/ta hitzarmenetan esaten den bezala, Administrazioaren zeregina, beste batzuen artean, irakasleriaren parte hartzea erreztea da; txosten honen xedea, azaltzen diren proposamenak lagungari izan daitezela lortzea.

3. XX. Topaketen lan-taldeak

Irakasleen formakuntza oso gai zabala denez behar-beharrezkoa da aztergaia mugatzea eta nolabaiteko sailkapena egitea. Jardunaldiak denbora aldetik ematen duen aukera kontuan hartuz, hiru talde osatu ziren eta talde bakoitzeko koordinatzaileek gaiaren inguruko hausnarketa bideratzeko egokien ikusi zuten tresna diseinatu eta proposatu zuten.

1. Hasierako formakuntza

Europako herrialde guztietan Haur eta Lehen Hezkuntzan irakasteko antzeko ezaugarriak dituen titulazioa ezartzen ari da; lau urtetako ikasketak dira eta "practicum" aldiari garrantzi berezia ematen zaio.

Talde honetan irakasle titulurako ikasketa plan berriaren aurkezpena (zirriborroaren laburpena) egin zen eta partaideek gaur egun eskolak dituen beharrak azaltzeko aukera izan zuten. SAREAN elkarteak etorkizunean Gipuzkoako Magisteritza eskolarekin kolaboratzen jarraitzeko asmoa du.

2. Etengabeko formakuntza

Talde honek etengabeko formakuntza aukerak aztertu zituen, bakoitzari dagokion arautegia kontuan hartuta. Datuak, iradokizunak eta puntuazioa jasotzeko fitxa bat erabili zen.

3. Laguntza zerbitzuak

Berritzeguneen lurralde antolakuntza eta bakoitzean dauden lanpostuak aztertu ziren. Lan talde honetan bakarrik Gipuzkoako ikastetxeen ordezkariak bildu ziren, beraz, egin ziren proposamenak esparru horretan kokatu behar dira. Komenigarria da azaltzea hemen egin zen lana ez zela laguntza zerbitzuen ebaluazioa, baizik eta ikastetxeen beharretatik abiatuta laguntza zerbitzuentzat lagungarri izan daitezkeen iradokizun batzuen aipamena.

1. Hasierako formakuntza

SAREAN elkartean aspaldi sontu zen irakasleen formakuntzaren inguruko kezka. Agerian dago Magisteritzako ikasketa plana zaharkituta geratu dela eta egungo eskolak dituen beharrak eta erronkak plan horretatik urrun daudela.

Hori dela eta SAREAN Irakasle eskoletara hurbiltzeko ahaleginak egin ditu, eta hainbat alditan kolaboratu du hitzaldiak ematen; gaur egun oso harreman ona daukagu eta elkarrekin lan egiteko prest gaude.

XX. Topaketetan beste urrats bat eman zen elkar lanean eta irakasleen hasierako formakuntza landu zuen taldekak gaia jorratzeko, irakasle ikasketetarako plan berriaren zirriborroa izan zuen oinarritzko dokumentu bezala (1. eranskina).

Jarduerak bi atal nagusi izan zituen:

1. Hausnarketa eta iradokizunak galdera honen inguruan: *"Ikastetxeetara heltzen diren irakasle berriengan zer igertzen da faltan?"*

Galderak eztabaida aberasgarri bezain konplexuari zabaldu zion bidea, eta lehenengo eta behin, irakasle berriengan nabariak diren ezaugarriak identifikatu ziren:

- Ikasketa maila altua gehienetan, habilitazio bat baino gehiagoren jabe edo lizenziatuak izaten baitira asko.
- Esperiantzia ezatik aparte, inplikazio falta nabaria adierazten dute. Honekin batera taldean argi geratu zen ordezkoei jasan behar duten egoerak ez duela sarri askotan gogoz inplikatze motiborik ematen.

Bestalde, ikastetxeetara heltzen diren irakasle berri horien ezagupen maila ondoko arloetan indartu behar da:

- Ikastetxearen antolamendu orokorra egiteko jakin beharreko edukietan.
- Teknologia berrien aplikazio pedagogikoetan.
- Hezkuntzaren egituraren ezagutzan, Berritzeguneak, multiak, proiektuak...
- Heziketa emozionalaren arloan.

Ikastetxeek ere irakasle berri horien sarrera errazte aldera ahaleginak egin behar dituela argi geratu zen eta Harrera plan bat edukitzearen beharra eta onurak aho batez berretsi ziren.

2. Irakasle titulurako ikasketa plan berriaren zirriborroaren azalpena Donostiako Irakasle Eskolako Zuzendariaren eskutik burutu zen. Plan honen ezaugarri nagusiak:

- Kreditu sisteman oinarritutako 4 urteko ikasketak izango dira.
- Titulu berriak: Hezur Hezkuntza 0-6 eta Lehen Hezkuntza 6-12.
- Praktikak eta proiektua oso garrantzitsuak dira.
- "Aipamenak" izendatutako espezializazio berriak (1. eranskineko 8. orrial.)
- Profesionalizazioaren indarra

Ikasketa plana berrizatzeko proposamenak Europa mailan hartutako erabakien iltotik doaz eta testu inguru berri horri egokitzea dute helburu.

Prozesuaren momentua ekarpenak egiteko egokia da eta Gipuzkoako Irakasle Eskolako Zuzendariak holan adierazi zigun Topaketetan, gure iradokizunak eskertuko dituztela ziurtatuz.

Planaren argi-ilunen azalpenean, zalantzak "Aipamenean" atalean sortu ziren batez ere. Hauekin ohikoak ditugun espezialitateak birmoldatuko dira eta ez da garbi ikusten nola txertatu eta errotuko diren ikastetxeetako dinamikan. Atomizazio gehiegi izatearen arriskua aurreikusten da.

Iradozizunak:

- Haur Hezkuntzako espezializazio barruan "aipamenean" egiterakoan agian egokia izango litzateke tarte desberdinak markatzea 0-2 / 3-4 / 5-6 eta Ingelera, Musika Psikomotrizitate... kontuan hartzea.
- Lehen Hezkuntzan, aldiz, sailkaturik agertzen diren batzuk orokorrak izatea (troncales) hobeto ikusten da, etapa honetan ez delako hainbeste espezializaziorik behar (Ingurune, Matemática, Lenguai...)

Atal garrantzitsua Praktikei dagokiena da. Gaur egungo esperientzia abiapuntu bezala hartuta, honako ideiak sortu ziren taldean:

- Praktika aldia luzatu behar dela oraingo praktikak guztiz eskasak direlako. Ahal izanez gero urte osorako praktika aldia planteatu beharko litzateke, nahiz eta ikasleak ordutegi osoan ez egon.
- Ikastetxe bat bere osotasunean ezagutu behar dela uste dugu eta noski, ebaluatze momentuan tutorearen iritziarekin batera beste pertsona batzuen ere kontuan hartzea.
- Harreman gehiago behar da Irakasle eskola eta ikastetxeen artean praktikak diseinatze garaian eta ikasleak onartzen dituzten ikastetxeekin kontaktu pertsonala izatea beharrezkoa ikusten da.
- Praktikak baliogarriak izango badira, errealak izan beharko dira eskolako dinamika eta ikasleen beharrak benetan ezagutzeko bidea.
- Errekonozimendua behar zaio praktikak hartzen duen irakasleari eta formakuntza honetan parte hartzen dutenei.
- Praktika aldiak ordainduta egon beharko luke?

- Denbora luzatzearekin batera, praktikak egitera dedikatzen den aldiak honako esparru berriak ukitu beharko lituzke:
 - Antolamendu eta kudeaketa arloak.
 - Pedagogia arloa: Hezkuntza Berezia, beste espezialisten ikuspegia...
 - Ikastetxearen ingurua eta kanpoko harreman eta zerbitzuak.

Zirriborroari eginiko zenbait kritika:

- Helburu oso zabalak eta orokorreko ikuspegiarekin agertzen dira; hau positiboki baloratzen da, baina gero kredituak emateko garaian gehienak arloetako didaktikeei ematen zaizkie
- Ez dira antolamendua eta kudeaketa arloak ukitu ere.
- Ingelera maila altuago exijitu beharko litzazieke irakasle guztiei.

Konklusio gisa

Irakasle titulurako ikasketa planak berriztatzeko behar handia du, inolako zalantzarik gabe, asko hitz egiten da XXI. mendeko gizarteak planteatzen dituen erronkeei buruz, konpetibitate, konsumismo, indarkeria eta beste zapalkuntza modernoetatik ihez egiteko beharraren inguruan baina karrera horretan garaile izateko trebakuntza umetatik hasi behar da eta horrek zuzen-zuzenean etorkizuneko irakasleen formakuntza egokia eskatzen du.

2. Etengabeko formakuntza

Talde hau jendetsuena izan zen, hiru lurraldeetako 27 partaide bildu ziren eta jasotako fitxen datuen arabera ordezkatzeko zituzten ikastetxeek ondoko ezaugarriak dituzte (16 ikastetxe):

<i>Ereduak</i>	<i>A</i>	<i>B</i>	<i>D</i>	<i>A-D</i>	<i>B-D</i>	<i>A-B-D</i>	<i>Erantzun gabe</i>
	1	0	12	1	0	1	1

<i>Unitateak</i>	<i>0-10</i>	<i>11-20</i>	<i>20-30</i>	<i>>30</i>	<i>Erantzun gabe</i>
	1	6	4	1	4

<i>Lurraldeak</i>	<i>Araba</i>	<i>Bizkaia</i>	<i>Gipuzkoa</i>
	2	7	7

Jardunaldian etengabeko formakuntza mota desberdinak aztertu ziren; horretarako bakoitzari dagokion araudi edo deialdiaren ezaugarriak baloratu ziren (2. eranskina). Eztatidaren ondoren proposamen bateratuak jaso ziren.

a) Formakuntza - berrikuntza proiektuak

Taldean ordezkaturik zeuden ikastetxe guztietan (16) burutzen da formakuntza mota hau. Oso ondo baloratuta dago eta aipatu ziren onuren artean hauexek dira nagusienak:

- Ikastetxeetan formakuntza arloan atzematen diren beharrak asetzeko bide bat da.
- Aukera garrantzitsua eskolan sortzen diren proiektuei forma emateko.
- Aukera ona irakasleak formatzeko.
- Berritzeguneetako laguntza jasotzeko aukera.
- Markatzen diren ildo nagusietan edozein proiektu txertatzeko erreztasuna.
- Eskolako metodologia aztertzeak aukera.
- Talde pedagogikoen arteko koordinazioa bultzatzen dute.
- Lortzen den diru laguntza ere ondo datorkie eskoleei.
- Eskolaren antolakuntza globaltasunean lotzeko bide bat.
- Geletako lanean ondorioa duen zeregina.
- Klaustroko kide guztiak (edo gehienak) inplikatzeko era bat.
- Ordutegi barruan izatearen abantaila.

Alde positiboak ikusita, zuzendu edo hobetu beharreko alderdiak ere aipatu ziren:

- Diru laguntza eskasa
- Berritzeguneetako aholkulariez gain, gai batzuekin beste aditu batzuen beharra.
- Partaidetza borondatezkoa izatea.
- Proiektu serio bat egin ahal izateko premiazko baldintzak —denbora eta diru laguntza— bermatzea.
- Proiektu nagusi batzuen inguruan (normalkuntza adibidez) urtero egon beharko luke klaustro osorako formakuntza.
- Formakuntza proiektuaren koordinatzailearen denborak Lanpostuen zerrendan (RPT) izan beharko luke islada.
- Iraupen mugatuegia ezartzen dute.

Lan-taldeko partaideen iritzian argi dago Formakuntza Proiektuaren jabea eskola dela eta eskolak kudeatu behar duela. Garatzeko egin beharreko bidean laguntzak egon daitezke: Berritzeguneak, beste aholkulariak etab. baina arduraduna eskola da.

Lehen esan bezala, formakuntza modalitate hau asko estimatzen da ikastetxeetan eskaintzen dituen aukerengatik, baina praktikan bi muga estuen bitartean egin behar du aurrera, lehenengoa diru laguntza murriztaren oztopoa eta bigarrena klaustrokideentzat borondatezkoa izatearen ezaugarria. Lan-taldean eztabaida luzea sortu zen bi puntu nagusi hauen inguruan. Diruari dagokionez ikusi zen ez dela indarrean dagoen lan-baldintzen hitzarmena betetzen 21. artikuluan hau irakurtzen baita:

2.- Hitzarmen honek indarra duen aldian, Hezkuntza Sailak —betiere aurrekontu arrunta baliatzerik bada— gaur egun jardunean dauden irakasleak prestatzeko aurrekontuko esleipena handituko du; horretarako, aurreko urteko KPIren balioa igoko dio gutxienez.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren 2002-2004 txostenean datu hau ere aztertzen da:

"Prestakuntza modalitateen" arteko banaketa, 228/2002 Dekretuaren arabera eta aurrekontuaren banaketa 2002-03 eta 2003-04 ikasturteetan.

	Dekretuan jasotako	2002-03		2003-04	
	%	€	%	€	%
Ikastetxeko prestakuntza*	%55	1.554.830	%43,2	1.380.843	%40,3
Espezializazio ikastaroak*	%25	255.900	%7,1	81.456	%2,3
Autoprestakuntza ekintzak*	%15	1.790.616	%49,7	1.950.281	%57,0
Askotariko jarduerak	%5	0	%0,0	0	%0,0
GUZTIRA	%100	3.601.346	%100,0	3.422.581	%100,0

* *Ikastetxeko prestakuntza: prestakuntza proiektuak + berrikuntza proiektuak*

* *Espezializazio ikastaroak: gaikuntza ikastaroak*

* *Autoprestakuntza ekintzak: autonomia erkidegoko Garatu eskaintzako ikastaroak eta banako laguntza ekonomikoak*

* *Askotariko jarduerak*

Esan behar dugu ez dela bete Hezkuntza Sailak 2002. urteko akordio sindikalean hartutako konpromisoa (EHAA, 2002/10/25), hots, irakasleen prestakuntzarako erabilitako aurrekontua urtero handitzea gutxienez KPIaren gehikuntzaren neurri berean.

Topaketetako lan-talde honetan oztopo bezala baloratu zen ezaugarria "borondatezkotasuna" izan zen. Luze eztabaidatu zen honen inguruan eta gogora ekarri ziren derrigorrezkoak izan diren formakuntzak, hala nola PIF, eta irakasleen ahalegin hark suposatu zuena batez ere taldean lan egiteko ohitura garatzeko. Gehiengoaren iritzian gaur egun ikastetxeetan egiten den formakuntzak ezaugarri hori behar du, hau da, denontzat derrigorrezkoa izatea.

Formakuntza modalitate bakoitzari 1etik 5era doan eskalan puntuatzea eskatzen zen eta honen kasuan 3,2 izan zen batzbestekoa, ekimenari ematen zaion garrantzia eta praktikan gauzatzen den moduen arteko tirabira erakutziz.

b) GARATU

Programa honen bidez irakasleen formakuntza pertsonala garatzeko bide bat eskaintzen da. batzuetan aukeratzen diren ikastaroak ikastetxean dagoen beharren batek bultzatuta egiten dira baina beste kasuetan maila pertsonalean. Taldeko partaideen iritziz formakuntza ona da. Datuen arabera urtero ikastaro asko bertan behera gelditzen dira baina aldi berean ikastaro bat eskatutako hainbat jende lekuri gabe geratzen da. Badirudi eskaintza eta beharren artean desoreka dagoela. Ikastaroak bertan behera uzteko arrazoien artean lekua eta ordutegia oso garrantzitsuak dira.

Iradokizunak:

- Ikastaroen tokiak sakabanatuagoak egotea.
- On line ikastaro gehiago prestatzea.
- Harrera ona duten ikastaroak leku desberdinetan errepikatzea.
- Ikastaroren bat era desberdinetara egin froga moduan. Hau da, eskaera asko jasotzen duen ikastaroren bat leku eta ordu desberdinetan antolatu.

Bertan behera gelditzen diren ikastaroentzat erreserbatuta dagoen dirua zertan edo/eta non gastatzen den ez dakigu; arlo honi buruz ikastetxeetan informazioa jaso behar dela uste dugu.

Formakuntza modalitate hau mantendu behar delako ustea nagusitu zen Topaketetan baina sistema hobetu behar dela argi uzten du ematen zaion puntuazioak, 1etik 5era doan eskalan 2,8 baino ez.

c) Berritzeguneek antolatzen dituzten jardunaldiak

Oso balorazio positiboa dute jarduera hauek ikastetxeen formakuntza prozesuan laguntza handia direlako; gehien estimatzen diren ezaugarrien artean ondokoak aipatu ziren:

- Ikastetxearen beharretara egokitzen dira.
- Ikastetxean bertan egin daitezke.
- Aholkularien lana garrantzitsua da arrakasta lortzeko.
- Mintegiak oso lagungarriak izaten dira.
- Leku desberdinetako proiektuak ezagutzeko antolatzen diren jardunaldiak oso interesgarriak dira.

Balorazioa positiboa izanda, lan-taldearen partaideek antolakuntza honek dituen alde ahul batzuk ere detektatu zituzten, hala nola erreferentziazko aholkulariaren nortasunak duen garrantzia proiektuaren emaitza arrakastatsua izateko, edo/eta Berritzeguneei askotan lan gehiegi ezartzen zaiela eta gai batzuen inguruko ezagupen falta nabaritzen dela.

Bestalde, ordutegiaren barruan antolatzen dituzten jardunaldietara joateko ikastetxeetan irakasleak liberatu ahal izateko sortzen den arazoa ere aipatu zen.

Hausnarketa bitartean galdera batzuk sortu ziren. Berritzeguneetako aholkulari batek zer daki eskolari buruz? Zer hurbiltasuna dauka eskolarekiko? Beti berdinak izan behar? Berritzeguneetako aholkulariek noiz egiten dute beren formakuntza?

Heziketa Bereziko aholkulariek egiten duten txostenak eragina izan dezake ikastetxearen RPTan, horrek holan izan behar du? Ondorioa aholkularitzatik haratago doa... Proiektuetan egonez gero, Berritzeguneak ezin ditu pertsonal beharrak erabaki baina heziketa berezian berriz bai. Ona al da hau?

Galderen inguruan eztabaidatu arren ez da proposamen zehatzik eman baina sakontzeko puntuak direla uste dugu.

Irakokizunak:

- Mediateka bat osatzea, jardunaldi eta hitzaldi interesgarriak grabatu eta sailkatu eta ikastetxeetan beharrezkoa denean ikusteko posibilitatea izatea; holan klaustro osoak ikusiko luke eta ideien transmisioa zuzenagoa izango litzateke.
- Ikastetxeetan gauzatzen diren esperientzien zabalkundeari denbora gehiago eskaintzea.
- Premia bereziko ikasleei begira aholkularitza zuzenagoaren beharra igertzen da.

Formakuntza mota honi emandako puntuazioa 3,5 izan da (1etik 5era doan eskalan).

d) Banakako laguntzak

Laguntza sistema honen bidez norbanakoaren formakuntza zabaltzeko egiten diren ahaleginei nolabaiteko saria eskaintzean zaie gastatutako diruaren parte bat errekueratuz.

Egokia iruditzen zaigu posibilitate hau izatea eta informazio zabalagoa ematea proposatzen da, irakasle gutxirengana heltzen baita.

e) Ingelesa udan

Ikastaro hauek beharrezkoak dira ingeles hizkuntzan gaurkotzeko. Oso ondo baloratuta daude eta eskakizun asko egoten dira baina plaza gutxi eskaintzen dira. Hizkuntzei gaur egun ematen zaien garrantzia eta Hezkuntza Sailak egin duen apostua ikusita ondoko proposamenak egiten dira:

- Irakasle guztiei begira Ingeles hizkuntzan 0-tik hasteko ikastaroak antolatzea.
- Ingeles gaia irakatsi behar dutenentzat udako ikastaroetako plazak gehitzea.

f) IRALE

Programa honen bidez euskalduntze prozesuan eman diren pausoak oso garrantzitsuak izan dira, Hezkuntza Sailaren apostua eta irakasleen ahalegina azpimarratu dira gaur egun euskara aldetik eskola publikoan dagoen egoera onaren eragile bezala.

Momentu honetan ikastetxeetan ikusten diren beharrak batez ere R motako ikastaroei dagozkienak dira. Oso ondo baloratzen dira, klaustrotan zabaltzea ikusten da beharrezkoa eta egindako iradokizunak bide horretatik zuzendu dira:

- R-300 egiteko plazak gehitu
- R-300 ikastaroak hiriburuetan bakarrik antolatzen dira eta kasu batzuetan kilometro askotara desplazatzea eragozpenak sortarazten ditu. Komenigarria izango litzateke tarteko lekuetan posibilitatea edukitzea.
- Batzuetan labur geratzen dira ikastaro hauek

Ikastetxearen ezaugarriak kontuan hartuz, ondoko lehentasunak markatu dira:

-
1. R300 ikastaroa (Euskararen ezagupena finkatzeko)

 2. R600 Curriculumaren euskal dimentsioa

 3. Hobekuntza - ikastaro laburrak

 4. R500 Hizkuntzaren konpetentzia: bizkaiera

 5. U ikastaroak (Hizkuntz Eskakizunak lortzeko)
-

Esan bezala, R-300 eta R-600 ikastaroak dira ikastetxeetan momentu honetan gehien baloratzen direnak.

Laburbilduz, eskola publikoetan irakasleen eta ikastetxeen etengabeko formakuntza, hezkuntza komunitatearen jardunean beharrezko zeregin bezala ikusten da, aholkularitzari garrantzia ematen zaio eta beste ikastetxeen proiektuak ezagutzea prozesuaren atal aberasgarri bezain garrantzitsua kontsideratzen da.

Guzti honek Administrazioaren konpromisoa merezi duela uste dugu, behar diren baliabideak jartzeko duen erantzukizunari dagokionez.

3. Laguntza zerbitzuak

Lan-taldeen lanaren sarreran aipatu bezala, laguntza zerbitzuen inguruko hausnarketa egin duen taldeak ezaugarri bereziak izan ditu, partaide gutxi (10) haien artean batzuk Berritzeguneetan lan egiten dutenak eta denak Gipuzkoakoak. Beraz, ematen diren iritziak eta egiten diren iradokizunak testuinguru horretan kokatu behar dira.

Talde honek gaia aztertzeko erabili duen dokumentazioa Hezkuntza Sailak bere WEB gunean daukan informazioa izan da (3. eranskina) eta nahiz eta hausnarketa neurri handi baten Berritzeguneen inguruan izan beste zerbitzuak are kontuan hartu dira, CEIDA adibidez.

1. Berritzeguneak

1.1. Berritzeguneen kokapena - kopurua

Berritzegune kopurua murriztu egin da eta zonalde batzuetan fisikoki ez daude ikastetxe batzuetatik hurbil. Beraz, Berritzegune bakoitzari dagokion ikastetxe kopurua gehitu denez, zerbitzuaren kalitatea jeitsi da edo jeisteko arriskua ikusten da. Hau agerian geratzen da egunean eguneko praktika ondoko egoerak obserbatu direlako:

- Mintegi edo ikastaroetan jende gehiegi biltzen da (eta honen ondorioz batzuk ez joatea erabaki dute)
- Aholkularitarako ikastetxe gehiago daudenez zailtasunak daukate denetara heltzeko eta behar bezalako laguntza eskaini ahal izateko.
- Urruntasun fisikoa eta horren eraginez zerbitzuak ez erabiltzeari ekin diote zenbait kasutan.

1.2. Aholkularitza

Ikastetxeetan aholkularitza oso zerbitzu estimatua da eta askotan proiektuen arrakastaren parte handia horretan datza. Topaketetako lan-talde honetan zeregin garrantzitsu hori zaildu egiten duten oztopoak azaldu ziren:

- Ikastetxe bakoitzeko beharretara iristeko ezintasuna edo/eta zailtasuna.
- Aholkularien artean oso esperientzi desberdinak daude.
- Zenbait aholkularien formakuntza eza.
- Ikastetxeek talde dinamizatzaileak izan daitezela eskatzen diete aholkulariei proiektuak aurrera eraman ahal izateko.
- Aholkulari erreferentea beharrezko figura dela ikusten dugu baina zenbait kasutan lan hori egokitzen zaion pertsona ez da egokiena eta arazoekin

egiten dugu topo. Ikastetxeak dinamizatu eta proiektuak bideratzen lagundu behar du.

- Ikastetxeetan gero eta behar berri, proiektu berri gehiago daude eta zenbaitetan Berritzegunetik ez zaigu laguntzarik heltzen. Kanpoko aholkularitza behar izaten dugu proiektua aurrera eramateko; hau askotan zaila egiten da garestia delako eta jasotzen dugun diru laguntzak ez duelako horrenbesterako ematen.

Beharrak eta oztopoak aztertuta, galdera baten inguruko eztabaida sortu zen: Berritzeguneko aholkulariek finkoak izan behar dute betiko ? Kasuen kasuko egoeren arabera iritziak entzun eta gero ideia orokor baten inguruko adostasuna lortu zen, hau da, ikastetxeen beharrak etengabe aldatzen ari badira, aholkularien perfilak eta formakuntza aldatuz joan beharko lituzkete.

Zenbait aholkulari finko izatea beharrezkoa ikusten da, etapa, HPB eta erreferenteak baina beste batzuk proiektuen arabera aukeratuak izan beharko lukete. Bizikidetzak, kultur artekotasuna...etab.

1.3. Ematen diren ekintzeen buruzko gogoeta

- Ikastaroak: Orokorrean ondo baloratzen dira. Eredugarri bezala dira Bidasaldeko Jardunaldiak. Irailean antolatzen dira eta tutoreen eta irakasleen nahiak eta asmoak kontuan izaten dira. Partaidetza handia izaten da eta ikastaro horiek gai baten inguruko sentsibilizaziorako baliogarriak izaten dira. Askotan formakuntza hori ikastetxean bertan izan daiteke.

- Mintegiak: Orokorrean interesgarritzat jo ditugu.

Zuzendarien mintegien inguruan zentratu da eztabaida. Zuzendarien behar eta interesetatik abiatuz joan beharko lukete mintegi hauek. Aurten formakuntzaren zati bat izan denez, Administrazioak ezarritako gidoia erabili da eta batzuetan gure asmoetatik urrun samar egon da.

Gure proposamenak bestelako oinarria du, guk uste dugu mintegi horiek ikastetxeen errealitatea izan behar dutela abiapuntu; zuzendarien arazo, beharrak eta asmoak aztertu ondoren erabakiak hartzeko laguntza suposatu behar dutela.

1.4. Berritzeguneko arteko koordinazioa

Berritzeguneko arteko koordinazioa badago: proiektu, mintegi, aholkularitza... Berritzeguneko askotan sentitzen dira Administrazioaren adar eragile gisa eta ikastetxe eta Administrazioaren arteko nahien artean mugitu beharrean daude.

1.5. Mailegutza

Berritzeguneen azken konfigurazioan ez da aipatzen errekurtsio zentroak direla eta ondorioz alderdi horren ezagupena ez da zabaltzen. Arlo horretan informazioa eman behar dela uste dugu.

1.6. Ebaluazioa

Proiektu guztien koordinazio eta ebaluazioa beharrezkoak direla uste dugu baina askotan horren berririk ez dugu izaten (adibidez, Ingeles goiztiarra) Ebaluazioa hobekuntza prozesuaren parte nagusia dela sinesten dugu baina ezinbestekoa da emaitzak ezagutzea eta aztertzea.

Bestalde, ikastetxeetan ondo jakin behar dugu aholkulari bakoitzari zer eskatu diezaiokegun.

2. Beste zerbitzuak

- *CEIDA*: Ez da Hezkuntzako laguntza zerbitzu bat. Pertsonala Hezkuntzako da baina gainontzekoa beste Sail batzuetakoa da. Agenda 21 proiektuen aholkularitza gidatzeagatik ezaguna baina ingurugiroarekin erlacionatutako beste proiektu batzuetan ere lan egiten dute. Bertan lan egiten duten aholkulariak ere gero eta lanpetuagoak daude.

Ondorioa

Laguntza zerbitzuak beharrezkoak dira ikastetxeentzat. Ikastetxe bakoitzeko pedagogi atalaren dinamizazio lanetan laguntza garrantzitsua suposatzen dute eta mota guztietako proiektuen diseinu, aholkularitza eta jarraipenean benetako euskarria eskolentzako.

Zeregin honetan aholkulari formatuak behar ditugu; prozesuak gidatzeko trebetasunekin eta Hezkuntza Sailak markatzen dituen ildo nagusien barruan kokatzen diren proiektuen garapenean laguntzeko gaitasunekin.

Lehen aipatutako arrazoiarengatik bai proiektuek bai laguntza zerbitzuek ebaluaketa izan behar dute.

4 . Proposamenak

XX. Topaketan landutako gaiak *"irakasleen eta ikastetxeen formakuntza eta aholkularitza"* norberaren praktikaren inguruko hausnarketari aukera emateaz gain besteen jardunari ere leiho bat ireki dio, berdinen arteko formakuntzaren garrantzia agerian utzita eta egindako lanari etekin bikoitza atereaz.

Lege nagusiei emandako begiradak zera erakutsi digu, esparru legalak etengabeko eta kalitatezko formakuntza baimentzen duela; hau holan izanik, Administrazio eta ikastetxeei dagokie eskola gizartearen beharrei erantzuteko behar den ahalegina egitea; ikastetxeek proiektuen garapenaren bitartez eta Administrazioak baliabideak jartzen proiektuak egia bihurtzeko.

Norabide honetan abiatuta eta gaur egungo antolakuntza eta programak oinarri bezala hartuz, XX. Topaketan proposamenak ondoko esparruetan kokatzen dira:

1. Irakasleen hasierako formakuntza eskolak dituen erronka eta beharrei egokitu behar da. Prestatzen ari den plan berria, irakasle trebatuago lortzeko tresna ona izan daiteke. SAREAN elkarteak gogoz kolaboratuko du plana ahalik eta egokiena izan dadin.
2. Etengabeko formakuntzaren hobekuntzak ezinbesteko baldintza exijitzen du, hots, aurrekontua gehitzea. Kontuan hartu behar da azken deialdiaren diru kopurua 1.522.500 € izan dela eta kantitate horretan eskola publiko zein pribaturako formakuntza sartzen dela, baina ikastetxe pribatuek gero beste deialdi bereziak dauzkatala. Gainera urteak pasa ahala partidak murriztuz joan dira nahiz eta Hezkuntza Sailak sindikatuekin adostutako lan-baldintzen hitzarmenean kontrakoa sinatu.
